

JARDUNBIDE EGOKIAK KULTUR ONDAREAN

Baliabide naturalak eta kulturalak gizateriaren ondare amankomunaren parte dira.

Memoria Kolektiboa eta Kultur Ondarea garapen eta hazkunde indibidual eta sozialaren oinarri dira.

Kultur Ondarea ondo kudeatu behar da, gaurko eta biharko belaunaldientzat modurik jasangarrienean babestu, kontserbatu, interpretatu eta errespetatuz.

Gure betebeharra da Kultur Ondarea errespetatzea: paisaiak, kulturak eta ondare-elementu guztiak.

Ondarea zaindu eta gorde behar dugu, eta gozatu; horrela, ondarea bizirik mantenduko dugu, eta haren etorkizuna bermatuko.

Goza ezazu Kultur Ondareaz, baina haren biziraupena eragotzi dezakeen inpaktu negatiborik eragin gabe.

Bisitari bazara, informa zaituz, eta izan zaituz begirunetsu

Oraina gozatuz, gogora ezazu iragana, bost zentzumenekin, ondarea kaltetu gabe.

Izan zaituz abegikorra gainerako bisitariekin, gidarekin, langileekin...; trata itzazu errespetuz

Kultur Ondarea ezagutu eta errespetatzeak aberastu egiten gaitu, aniztasuna onartzen ikasten baitugu, eta herri eta kulturen arteko ezberdintasun legítimoak toleratzen.

Kultur Ondarea mantentzeko eta zaintzeko, berebiziko garrantzia du zure jarrerak.

Bisitari zabiltzanean, hondakinak murriztu, berrerabili eta birzikla itzazu.

Zaindu itzazu natura- eta ondare-eremuak.

Ez ezazu zaborrik sortu.

Ibilbide eta bisitei dagokienez, aukera itzazu paisaian eta monumentuetan inpaktu txikiena eragiten dutenak.

Parte har ezazu bisita gidatuetan, asko lagunduko baituzu ondarea zaintzen eta tokiko lana indartzen.

Egiezu kasu seinale eta jarraibideei.

Ez ezazu ondarearen arloko deliturik egin zure bidaien oroigarriak lortzeko. Eraman argazkiak, eta ez ukitu hondar babestuak.

Lagun ezazu instalazioak ondo mantentzen, eta ordaindu eskatzen den tarifa.